

HONDARRIBIA

D. L. S. S. 122/86 Inp. M. Fernández J. Ariza 27. 80/86

20. Zenbakia

UDAL EUSKARA - KONTSEILUA

50 pta.

1988 Apirila



JUANITO GONZÁLEZ CAMIO, JUANITO ENDANEKOA, Endanea baserriko semea, 53 urteko gizona. Ogibidez baserritarra, bokazioz eta gustoz ere bai. Ezkondua, sei seme-alaben atxa, langile porrokatua...

Baserri inguruan azken urteotan gertatu diren berrikuntzak ezagutzen tituena. Eta ez bakarrik ezagutu, baizik eta eguneroko lan-ean probatu eta asmatzen tituena.

Udaberrian barazkiek, landareek eta loreek zalaiek edertzen tituztenean egon gera elkarrekin. Hona esan tituenetatik ale batzuek:

—H: Baserria ondo pentsatuta dagoen negozioa da?

J: Baserria enpresa bat da. Enpresa hori emateko peoi bat jartzen baldin bada gaur, edo barkoko txobxua jartzen baldin bada patroli eta barkuakin nahi duena egin behar duela..., ba ez da gauz onik aterako. Ta baserriako berez desgraxiz daukaguna horixe da: ez gaudela prestatuak behar bezela, prestazio bat dugun baño askozaz haundia gaudela. Askok pentsatzen dute baserria oso gauza enpresa dela... ez, baserria behar bezela eraman behar badugu oso gauza zaila da. Ta orain Jaunari eskerrak gatzetxoak prestatzen ari dira baserriako, ta hoviek ikusiko dute gaudela-lan-gintzatik bakarrik bizitzea ez dagoela, beste frutagintzatik, barazgintzatik edo foregintzatik... beste posturak bai direla baserriatik gaudetik gabe bizitzeko ere. Gauduak zontzarrez, oraingo behintzat, ez du batera alderdi onik ekarki baserriko ta bizi-pozik ere ez. Gu oraindik beste aldera pixka bat maneiatzen gera ta ikusiko dugu zer benefizio etortzen zaizkigun Europa alde hortatik ta, zai gauda San Ixidro inguruan zai bezela.

(6. orrialdera)

BI URTE, HOGEI ALE

Aldizkari honen lehen alea 1968.eko martxoan kaleratu zen. Beraz, aurreko zenbakiekin bete zituen bi urteak eta oraingo honekin hogei aleak. Ez da Paris-Match, baina ez dauka zertan izan beharrik ere. Lehen zenbakian eta ondokoetan adierazten genuen bezala, aldizkariaren helburua txit apala da: hondarribiarak euskaraz irakurtzen zaletzea. Horretarako aldizkari lokala egitea erabaki zuen Euskara Azpibatzordeak.

Badakigu Afganistango gerra arroselaren prezioa baino inportanteagoa dela, eta irungo aduana Hondarribiko Benta baino. Hala ere, haien berri jakiteko bestelako aldizkariak eta egunkariak badaudenez, hemen bigarren horietara mugatzen gara, oraingo hermitarren irakurmina piztu eta biharkoentzat gaurko eta atzoko gertakarien aipamena paperezko gordailu txiki honetan euskaraz bildu asmoz.

Zorionez, Hondarribian ez dugu denok berdin pentsatzen eta sentitzen, ez kulturaz, ez politikaz, ez beste zera askotaz ere. Hondarribia ez da harrizko monolittoa eta pluraltasuna dago. Hor daude diferentziak eta beude. Alde horretatik, euskaldun guztiak aldizkaria egiten saiatu gara eta gure arteko diferentziak gehiegi ez nabarmentzen inori minik ez ematearren. Noizpait pa-

satu egingo ginen eta beste batzuetan motz geratu; gure nahia, ordea, Hondarribiko euskaldun guztien, zahar eta berri, aldizkaria egitea izan da. Asmatu ote dugun, hori besterik da.

Gaietan aldetik ere denetik sartzen ahalgindu gara bi urteotan: herriko berriak, udal arazoak, nekazaritza, arrantza, hezkuntza, kirola, e.a., lehenengo historiari edota toponimiari dagozkionak baztertu gabe, eta beti ere herriko norbaiten elkarriketari lehentasuna emanez. Badira aipatu gabe gelditzen zaizkigun gaiak, eta horien berri ematen ere saiatu beharko dugu. Irekita daude atek edozeinentzat.

Esan bezala, aldizkariaren helburua euskaldunak alfabetatzea da. Horren atzetik gabilatza eginahalean. Horregatik, euskara batua dugu adierazpide nagusi. Hala ere, tokiko aldizkaria dugunez ez diogu muzin egiten behin baino gehiagotan bertako mintzairaren filtro koloretsua jartzeari, elkarriketaren batez ere, bertakoen gozagarri eta kanpokoan erakusgarri.

Gaietan ditugu Aste Santua, Pazkoa eta Aberri Eguna... Ea hemendik beste bi urtetara, berrogeigarren ale hobetua ospatuz berriro elkartzeko zoria dugun.

"Hondarribia"




D. L. S. S. 122/86 Inp. M. Fernández J. Ariza 27. 80/86

20. Zenbakia UDAL EUSKARA - KONTSEILUA 50 pta. 1988 Apirila

UDAL EUSKARA BATZORDEAREN AGURRA

ALKATEAREN AGURRA



D. L. S. S. 122/86 Inp. M. Fernández J. Ariza 27. 80/86

20. Zenbakia UDAL EUSKARA - KONTSEILUA 50 pta. 1988 Apirila

PLENO KATATZATIA KAI BERRA DELA ETA

ARBOLA ETA OIHANA

Hondarribiarra zerbaitengatik harroxo sentitzen bada bere sorterniagatik da. Eta ez zaio arrazoi falta. Badaki naturalezak berexiki lastandu duela; berari zor dizkio itsaso, mendi, hondartzak, errekek eta abar. Gero, herrian sartzen bagara, konturatuko gara danetarik pixka bat badugula: bertako etxeek alderdi zaharra agertzen dute, modernoa ere bai, marifel kamrikak, baserriak... Esandako guziak bildu eta herri politt panpox bat osatzen zaigu. Eta ausartzen naiz esatera Hondarribiak alderdi itsusi bat ere ez daukala. Horregatik, herriarrok, bihotz eta aho betez aipatzen ditugu bere edertasunak.

Behin, lagun baten bidez, amerikano bat etorri zitzaigun etxera hemengo lurrak eta chiturak ezagutzeko gogo bizia agertuz. Zionez, bere aitaren aita hemengoa zen eta bere belarrietaraino iritsi ziren leku eta txoko hauen aipamenak, eta ea lagun-duko genion asmo eta gogo horretan. Nola ez! Hondarribia erakutsi? Bai horixe!

Udaberria zen eta poliki-poliki Kai Zahar aldera hasi ginen, gero goiko bidetik itzulitzeko. Behin baino gehiagotan geldi arazi gintuen hortik ikusten diren bixta politak begiratzeko. Gure ibilaldian gure baserri zahar bakartiez galdetzen zuen eta bere kufizia hori bete nahian hauen bidexidorreratik gorantz joan ginen baserriak hurbiletik ikustera eta beren inguruko zelai-soroak. Hango edertasun paketsu hura udaberriko txori amorotsuen kanta lagun! behin eta berriro errepikatzen zuen: "Baina nolatan


gure aitona joan zen hemendik lur idor haietara?". Gero Kale Nagusia eta inguruak ikustera jaitxi ginen eta, azkenik, "postre sorpresa" bezala. Portu aldea neukan gordea, eta, batez ere, San Pedro kalea bere marifel etxeak eta bere giroa. Egia esan, asko gustatu zitzaizkion etxeak.

Nekatu xamarak itzuli ginen etxera eta xeri ginenan udaberriko antxo eta entsalada jaten genuen artean, galdetu nion: "Eta, zer? Nolako iruditzi zaizu gure herria?". Eta ixilaldi labur baten ondoren esan zidan: "Benetan herri politt paregabeen bizi zarete; baina harrituta gelditu naiz: herri gu-

zia jan eta edateko prestatua dagoelarik, bi liburu denda bakarrik ikusi ditut. Honek herria salatzen du nolabait". Egia esan, ni jo eta poto gelditu nintzen. Ez nuen horrelako erantzunik espero. Denbora berean halako errabia bat ere sentitu nuen, baina ezin nuen ukatu egia haundi bat esan zidala.

Nere itsumenak eta ohiturak urteetan ikusten ez zutena amerikano hark arratsalde batean ikusi zuen. Hondarribiarrei nonbait esaera harena gertatzen zaigu: arbolek ez digute oihana ikusten uzten.

Lourdes Zubeldia



OHARRAK

TXANDAKO BOTIKAK

Apirilak 4 - 10 Iraola
11 - 17 Erauskin
18 - 24 Maiy
25 - 1 Iraola
Mayi, Alm. Alonso Kalean - 64.21.91
Iraola, J. Ugarte Kalean - 64.10.27
Erauskin, S. Pedro Kalean - 64.10.18


TXANDAKO OKINDEGIAK

Apirilak 1: Martinez
3: Arratibel
4: Garmendia
10: Martinez
17: Arratibel
24: Garmendia
Arratibel, Zubieta Kalean - 64.19.75
Garmendia, Santiago Kalean - 64.11.36
Martinez, Kale Nagusian - 64.12.12

PAZKOETAKO EGITARAU

APIRILAK 3 - IGANDEA

Betan: Txistulani Taldeak, Seguraren Alborada joko du.
12etan: Bertsolariak Kale Nagusian.
12,30etan: Sokamuturra.
Gaueko bederatzietatik goizaldeko ordu batera -"DRAKKAR"- musika taldearen emanaldia San Pedro Kalean, atsedenaldiran ZEZEN SUZKOA.



APIRILAK 4 - ASTELEHENA

Guadalupen:
10,30etan: Toka Txapelketa
12,30etan: Bertsolariak eta Trikitilariak.
16,30etan: Haur-jokoak.
Ondoreh: Aizkolariak, Harrijasotzaileak etab.
6,30etan: Sokamuturra.

HONDARRIBIAN ASTE SANTUA

Bere izen ona aipagarri egiten duten beste gauza askoren artean, Aste Santuko ospakizuna du Hondarribiak izen on horren adierazgarri bereizietako bat.

Jendetza izugarriak hurbiltzen dira herri paregabe hontara Aste Santuak eskeintzen duen atsedeen giroari etekin atseginia xurgatu asmoz.

Ikustekoa izaten da gure kale estu eta luze hauetako lekunik eza, bertaratut direnak aisaitasun puska batez ikus ahal izan dezaten kalean zehar ospatzen den nekaldi-ibilaldia. Kale ertz guztiak leporaino gairiezkatuak egoteaz aparte, etxeetako leihoak eta bide bazterretako kaxko-muñoak ongi aseak agertu ohi dira ostiral Santu arratsaldean.



Hala ere, iruzur egingo genioke gure buruari, une horretan agertzen den jende guztia, elizkizun hori ikusteko asmo soil ez etorri dela uste izango bagenu.

Bertako eta kanpokoentzat erakargarri diren berizitasun ugari aberats eskeintzen du bere burua Herri honek. Egun eta ordu jakin batean elizkizunen ospatzea.

Opor giroz jantzia datorikigun asteburu honek aukera egokia eskeintzen digu, batez ere gazteei, atsedeen luze baten besetan, beste lurralde batzuetako edertasunez gure begi-bihotzak ase ditagun. Hemengoak hara, hangoak hona, geldigogor bihurtzen da egun ahuetan gaurko gizaki ameslari asekaitez.

Gaurrengoko gizakiak, eta Elizak bera ere bai, bizi dituen irizpideak ikusita, harri-garria gertatzen da, gure kaleetan agertzen den bezelako fede-ospakizun bati hain zailtasun bizi eusten zaiola ikusita. Guztientzat ez bada ere, askorentzat eta askorentzat bizi-arnasa bezala gertatzen da, egun hauek horrelako ospakizunetara.

Herri askotan baztertuak dauden zahar-

tuak omen diren ospakizun hauek, edo/eta beste herri askotan fede-giroaren babesean beste begirapuntu batzuk omen dituzten agerpen hauek, begirunerik eta errespetorik garbenez gordetzen ditu, oraindik oraingoz, gure herriak.

Sendi bakoitzak, gizon eta emakume bakoitzak txukun eta garaiz zainduko du, egun hauetan berari dagokion egitekoa.

Ekintza eta agerpen guzti hauek, ordea, beren mamia eta muina dute. Mamira iris-teak ematen ditu anak. Gauza bakoitzaren edertasuna, bere esan-nahi sakona argitaratzen denean loratzen da.

Gertakizun hauetan buru-belarri sartua dagoenak, begien aurrean agertzen denez gainera, beste zerbaitean ametsa bizi ohi du. Pazko eguneko kanpai hots alaia du amets, hain zuen, gurutzetik askatutako egurrezko irudia, Ostiralek maitekiro besarkatu duen fededun ameslariak.

Ingurugiro jatorrez prestatu izango dugu aurtien ere Aste bereizi hau: giro giroko abesti aukeratzu osatutako kontzertuek irekiko dute Aste Haundirako ate zabala, aurreko ostiralean hasita.

Nere begiz begiratuta, egun hauetan ospatuko ditugun elizkizunen artean, punta puntako balio nagusia ematen diet, aste-lehenetan eta asteartean burutuko ditugun Penitentzi Elizkizunek. Nere begirapuntua da hau. HAU DA nere begirapuntua.

Sarrera hori eginez geroz, Ostegun Santuko bilerara, beronenetako gertatzen da gure elizan. Ostiralak berekin dakar uka ezinezko erakar indarra.

Guzti hau Pazkoari begira egin bada, bere esan-nahiean iholako ospakizunek hautsi ezin dezaketen JAI NAGUSIA zaigu Larunbat gauekoa.

Guzti honen borobilgarri bezala, hor da-



tor, haundiak eta txikiak alaitzen dituen gudari erromatarren erortzea "AINTZA ZERUETAN" oihukatzen den une dardaragarri hartan. Gauza bitxia, atseginia eta ikusgarria gertatzen da, hil zuten haren Pitsea adierazten duen delako "erorketa" hori. Bere giroan hartu behar!

Beste ifun ezagutzen ez den "TTOPARA" ere, jaiara gozo eta beroz girdetzen du gure herriak. Idazlan oso bat beretzat bakarrik beharko luke hain bitxia zaigun ohitura honek.

Dena dela, Pazkoaldiak eskeintzen digun pesta giroa begira egongo gara, noski, guztiok. Nik ere, nere aldetik, herri honen serbitzuan, bertako ohiturak bere bea-ean ospatzen saiatuko naizenez, Pazko jaietarako zorionik beroenak oia diziok herri osoari eta herriar bakoitzari.

Martin Iturbe

ASTE SANTUKO ELIZKIZUNEN ORDUAK

ASTEARTE SANTUA

Arratsaldeko 4-etan:

Penitentzi-elizkizuna, Portuko elizan (Erderaz).

Arratsaldeko 8-etan:

Penitentzi-elizkizuna, Portuko elizan (Erderaz).

OSTEGUN SANTUA

Arratsaldeko 6-etan:

Umeentzako elizkizuna, Portuko elizan, bi hizkuntzatar.

Arratsaldeko 8-etan:

Elizkizun Nagusia Parrokian, bi hizkuntzatar.

OHARRA: Arratsaldeko 5-etan, meza bat izango da Portuan, euskeraz.

OSTIRAL SANTUA

Goizeko 10-etan:

Guruz-Bidea, Parrokian, euskeraz.

Eguerdiko 12-etan:

UMEENTZAKO: Jaunaren Heriotzaren ospakizuna Portuan (Bietara).

Arratsaldeko 5-etan:

Elizkizun Nagusia Parrokian, (Bietara). Gurutzetik eraistea, Ibildeuna.

LARUNBAT SANTUA

Arratsaldeko 6-etan:

Pazko-elizkizuna UMEENTZAKO, Portuko elizan (Bi hizkuntzatar).

Arratsaldeko 8-etan:

Pazko-elizkizuna eta Meza Nagusia Parrokian (Bi hizkuntzatar).

PAZKO IGANDEA

Goizeko 10-etan:

Erromatar Gudarien erortzea.

Topara eta ibildeuna Parrokiko elizan.

Goizeko 10,30-etan:

Meza Nagusia Parrokian (Bi hizkuntzatar).

SAINDUA MARTXAN

Hemendik aurrera, Hondarribiko gazteek izango dute non elkartu, beuren asmoak eta proiektuak gauzatzeko, leku hori Saindua izango da eta bertan modu askotako ekintzak burutu ahal izango dituzte, horretarako gela eta areto franko egokitu

delako. Beheko solairuan, sarreran, informazio-bulego gisako bat jarri da eta solairu horretan bertan beste bi areto daude, bata, proiektzio eta mintzaldiatarako prestatuta dago eta bestea oraindik hornitu gabe badago ere, badirudi dantza, espresioa eta

antzeko ekintzetarako erabiliko dela.

Lehen solairuan hiru gela daude, hauek bat kultur-eragilearen bulegoa izango da, beste batean argazkigintzarako laborategi bat jar liteke eta hirugarrena berriz, tailer moduan edo bilerak egiteko erabiliko da.



Goiko solairua dena bat egina dago eta erakusketak, tailerrak jokuak eta beste hainbat gauzatarako oso egokia da.

Gaztetxe hau erabiltzen hasteko, gazteek egin zuten lehen batzaraldian Batzorde bat izendatu zuten eta hau arduratu zen Estatutoak egin eta Kultura Batzordera aurkezteaz, Kulturakoek Estatuto hauek aztertu eta zenbait puntu aldatu ondoren, gazteek, beste batzaraldi bat antolatu dute, aipaturiko Estatutoak eta Barne-Erregimenerako Araudia eztabaidatzeko, Lan-Taldeak sortzeko eta beste zenbait arazotaz hitz egiteko.

Gaztetxe honetan antolatuko den lehen-ekintza, erakusketa bat izango da, Eusko Jaurlaritzak urtero eratzen duen "Gazteria Lehiaketak" izenokoa hain zuzen eta apirilaren 1ean hasi eta 15a bitartean iraungo du, ondoren gazteek beuren iniziativa guztiak aurrera eraman ahal izango dituztelako uste osoan gaude.

SOLASAK eta JOLASAK

ESAN, MUTIKO:
ETORRI DA
UDABERRIA?



10 aldaera dituzu marrazkietan. Bila itzazu

HERRI GIROA

• Kepa Deun Arrantzale Kofradiaren lehendakaria, Esteban Olaizola, hain zuzen, Gipuzkoako arrantzaleen Kofradiako bize-presidente izendatu dute. Ea gure arrantzaleen arazoak argia ikusten hasten diren.

• Tokirik ez dagoela Hondarrribian kotxeak aparkatzeko eta Zumardiaren atzekaldean Udaletxeak horretarako bidean jarri ditu langileak. Askotan entzuna da apar-kamentu arazo honen soluzio onenak zera dela, aireportuan kaminoa itxi eta bertako pistak kotxeak sartzeko. Agian horretara ere iritsi beharko genuke.

• Etxe berriak eraikitzen dituzte edonon. Carlos V-enekoak amaitzeko gubri falta zaie eta esaten dutenez dotoreak dira (saltzeko prezioak, noski).

• Marlaxko etxeko teilatua kendu dute; behar zuen baino metro bateko gehiegizko luzera eman bait zioten.

• Herriko jendea ere hor dabil jo eta ke etxean atzetik. "Gure herrian" kooperatibak asanblada orokorra ospatu du eta badirudi Udaletxeak ere ikusi dituela zenbait behar. Biak batean lan eginez gero, ez al ziren gauzak azkarrago joango?


• Gauza nahiko nahasiak daudenez hurrengorako informazio argiagoa eskaintzea espero dugu.

• Hiria guztiona da eta badirudi zeresana badugula herriarrok. Hau honela izan dadin Udaletxeak buzoi bat ireki du polideportiboaren ondoko bulegoetan gure irizkiak eta eskaerak azaltzeko. Pikiak jango ote ditu paperak?

• Butroeko pasealekua konpontzen hasiak dira. Ez da gezurra, ez, erdal esaera: "las cosas de palacio van despacio". Pixkat gehiago eta hasierako zulo txikia espi-goian hasi eta Puntalean bukatuko zen!

• Mendizale gutxi dagoela Hondarrribian eta jendea mendira joan dadin (bixtarekin bedere) mendiko zinarean ziklo bat antolatu da. Guadalupeko Ikastetxean.

Mikel Mariskal



KULTURA

Honez gero Javier Bustok haurrentzat antolatut dituen musika heziketarako sailoen berri izango duzue.

Eskifaia Abesbatzaren zuzendari den Javier Bustorekin solasean aritu gara saio Hauen arrazoi eta helburuak argituz.

Egiten den lanaren azken lortpen nahia hauxe da: haur hauek Eskifaia Txikira irixten direnean bere belarri, erritmo eta bokal oinarriak, gaur egungo haurren baino neurri hobeto ikusi ditzatela. Berez, haur hauek ez lukete zergatik pasa beharko Es-

kifaia Txikira, baina biziko duten motibazioagatik hala izango dela pentsatzen du Javierrek.

Lanaren oinarria barru erritmoaren lortpena datza eta lortpen hau bide ezberdinetatik egingo da: Adib.: haurren ibilera ordenatu. Helburu hau lortzeko psikomotritate teknikak behar dira. Txikitan erritmoa landu ez duten heldu askok erritmo arazoak izaten dituzte. Beraz, beste elementuen antzera, erritmoaren garrantzi hau zuzen zuzenean bizi du zuzendari honek.

MUSIKA ESKOLA BERRI BAT HERRIAN

Bere ihardueran ariketa berdin batean bilduko ditu erritmoa, afinazioa eta bokal teknika.

Beste bigarren lan bat egiten du ere. Lan hau pertsona helduekin egiten du, helduen bokal berreziketa. Berreziketa honen planteamendua hauxe da, teknika bat jaso, barmatu eta ondoren teknika hori erabili.

Nahiz eta orain arteko denbora epea luzea ez izan, ondorio onak ikus daitezke.

Marbi

JUANITO GONZALEZ

—H: Baserria zer izango litzateke zuretzat...

J: Baserria da neretzako lanpostu bat fabrikari eta ez duten gauz bat duena: zortzitan esoz zarpitan, edo zure orduan han tutu baten azpian ez dezu egon behar, biño bai egin behar duzu zure lana edo beharra, inñsi eta bete behar duzu, besteala zure etorkizuna hortik nola daukazu etzazu inñsi. Ta zure etorkizuna inñsteko egin behar duzu lan egin, eta nola lan egin, ze komeni zaitun gehiena egiltze, ze errentabilidade gehiena emango zaitun, hortan jokatu behar duzu.

Hortan jokatzin duzularik ahal dela besteak ez duten garaian izan ditzazula barazkiak eta loreak, eta ganaduak ere berdin. Basemiko bide bakar horixe da. Orduan benta hobeak ditzuzu, errexago saltzen duzu, etorkizun hobeak daukazu, eta hobeto defenditzen zera. Basemiko maraita hor dago.

—H: Eta baserrian posible da libre bizi?

J: Baserrian biño-piza da ez tutu baten mende egotea, nahi duzularik hartzen ahal duzu festa egiltzeko eguna edozein egun. Behar bada igandean lan egingo duzu, hortan zera libre. Ta nik baserrian bilatzen dioten mailtasunik haundiena da libertadea. Ni txoria bezala kaiolan egoteak pena emango liake, naiz librea. Orain, beste batzuek festan dabilazten orduan haiek biño behar bada bai aldez lana gehiago egingo dugula, bai baño hurrengoan festako gogoak daukagunean ere besteak baño libreago gelditzen gera. Libertadea.

BEROTEGIAK

—H: Nola izan zen berotegi kontua, zuek nola ezagutu zenuten?

J: Hori aurren aurrea plastikoa ikusi nueneara, orain dela hogeitatalu urte, plastikoa pusketan bat erosi, ta egin nuen tunel txiki bat, sei metro luze ta metro t'erdia zabal. Orduan eman zian metrokota rentabilidade poliki bat, ta ikusi nuen beharrezkoa zela plastikoa sujatu ezkerre zerbaitekin etorkizuna bai zela hor.

Ta aurrea egin genun, nola kañabelak bagenittun etxean, kañabelakin arkuak egin, laguna barrenen ibiltzeko moduan... hura zen zoria! Han barruan, egualdi txarra eta kazkalabarra kanpoan, barrenen epel-epel, zure landareak eta zure barazkiak zaintzen zittuzten poliki.

Gero eta gehiago egittin gun ginan eta gero beste bat hiruhun metro koadro inguru hortakoa egurrezkoa, etxe baten forma.

Ta inun etzen hori. Ta hori ikusteko Extensioan Agrariako peritoak ematen zuten kursillo batzuek nola jokatu behar genuen ganaduak ta barazkiak, ta Bizkaitik ta Gipuzkoatik etortzen ziren autobusak gure etxera, honara. Esaten dute Zabalegiok ta Euskadiko aurreko tomateak plastikoa azpian hemen egin zela.



—H: Endeanen?

J: Bai, Endeanen. Etortzen zirenak ikusten zutelarik beudek biño tontoagoa nintze-la ni beste baserritar bat, orduan 'horrek egiten duena guk aiza egingo dugu', ta oso konsolatuak juten ziran.

Orain berriz, hemendik pasatako baserritarrek egundoko inberradero-sail haundirik jarrita oso industrializatuta ari dira lanean.

—H: Biño abiatu, hemendik...

J: Bai, hemendik atara ziren Bizkai ta Gipuzkoako inberraderoak. Ta Naparroa aldekoa, Pamplona bitartekoa behintzat, ere bai.

—H: Nondik heldu da inberraderoen kontu hau?

J: Frantzia ta izaten ziren lehen kristalezkoak, biño hagitz garestiak atetzen ziren eta etziren errentableak izaten. Biñon gu Frantzia aurrenekoa ikusten izandu ginenen guk orduko bagenittun kañabelazkoa, ta gurean tankerakoa zen burdinakin egina.

Gero, Frantzia ia en sene egiten zittuzten egurrezkoak, ta bastante urtez iraun diote, kristalezkoak egin zittuzten asko hola.

ESPEZIALIZAZIOA

—H: Gaur egin eta etorkizunean baserririk gero ta gehiago jo behar du espezializatzeraz? Zuen kasuan garbi jo duzia loretara, barazkitara...

J: Nik uste du hemendik aurrera gero ta gehiago oraindikan. Heldu dire beste gauza asko. Esaten ari dira negutegirako ongi joango dela 'babaco' fruta exotiko hori. Kiwi ere asko ari da, eta kiwi oso ona ematen da hemen, oso onak jan ditzugu, kapotik heldu denakin diferentzia ikaragaria du bertan egindakoa.

Gero, hemengo baserritaran fruta, neroru ere fruta ari naiz jartzen. Baserrian gauzak beharrena da, nere idunko, fruta da: sagarra, haranak, briñoiak, melokotioiak...

Lehenago sagar mota ta gauza asko kontserbatzen dittut. Eta hortatik aparte ikusten dut lur alperak, gehienak, fruta jarri ezkerre, behar bezala tratatuta, kanpotik etortzen dena baño askozaz gozagari gehiagokin ta hobeak egiten ditugula Euskal Herrian. Ta hortan oso motel gabiltza, ta oso atzera gatzoz.

—H: European saritzeak eragin zuzena, edo zuk egiten duzun horretan influentziarik badu?

J: Berez horrek ez digu aldatu, biño aldatu behar haundiak ekarriko dizkigu. Eta ganaduakin ari denari ia erasoak etori zaizkake. Eta guri ere kompetentzia nahiz Bilbako aldetik ta nahiz Donosti aldean, kanpoko lore-etxe fuertek inbertitzera dihoaz.

Ta guk teknikamente ditugun tramankuluak aldatu beharko ditugu ta beste postura batean jarri beharko dugu lanean. Biño niri, Jangoikiari eskerrak, ez zait iduritzen hortanok moztasun haundirik ekarriko dugunik.

Hemen konsuelo bakar bat daukat bihotzean: besteak ere lan egintza irabazi behar dutela. Ta gu, Jangoikiari eskerrak, tikitatik lanean ohituta gaudete, ta gure umeko ere bai. Lanean ohituta dagoen pertsonak laneko ordua hobeto errenditu du makina batekin edo besteekin, biño izango tñu ahalmenak, zerbait etornko zaion, nola jokatu behar dun, nola erantzun behar dion garai bakoitzean bere arazoan.

PROPOSAMENA

Eta besteak beste, hona agurtu aurretik herriaren itxura edertzeko bota zuen ideia: berak eskinitako lizikiokela Herriari landareak modu onean Hondarribiak giro polita berriz eskuratzeko:

J: Ta gero beste gauza bat, ez nere ofizioa delako, biño min puxka bat ematen nauena da Herriak loretzaintan duena ikustela da. Oso oso moduz Herriarteko delako jarri nezake lore-landareak ongi. Ta lastima da horrenbeste jende lanik gabe da goenez gero, Herriari aldetik jende hustasun hori izatea. Beurek ez baldin badute kontrata fijo hartu nahi badere, sustaba bat alera jardinar eta egingo ditzuten pertsonak hartu, nik uste dut Hondarribiak mezezi dula, hemendik bestaldera ikusten den bezala, eta oso presupuestu tikiakin konprometituko nintzake neumi landareak ixuraz beudeki prestatzera, beudeki jardinar antolatzeak. Aurrenak puskatu, ebatsi egingo ditzute, denborakin hoiek danak pasatzen dire, beste herrietan ere pasatzen dire ta, biño gero kultura aurrera dihoan bezala beste herri-giro bat sortuko litzake.

I. Etxebeste
Tx. Sagartzazu

FRANCIS JAMMES, OLERKARI NATURAZALEA

Aurten betetzen dira berrogetamar urte Francis Jammes poeta naturazalea hil zela. Gutik dakite ordea Jammesek zenbat maite zuten Euskal Herria. Pirineo Garaiko Tourmay hirian sortua zen, baina urte batzuk Biarritzeko Orthezen bizi ondorena Hazparnera etorri zen eta hemen bizi 1938an hil arte.

Bere egoitza zuen Azpamarko Eihartzea deritzan etxea, gaur egun, museo gisa jarria da. Zeren, Frantzia guzian ez ezik mundu zabalean ere ospe handia eman zituen, besteak beste, **Clara d'Ellebeuse** eleberririk eta **Les Géorgiques chrétiennes** poemak.

Bere gaztaroen Natura zale eta André Guidere-ndakidea zen, baina Paul Claudel-ek eragin handia izan zuen beregan eta katolikoa zintzo bihurtu zen.

Hala ere, bere gaztarotikoa naturazalea zaletasunak ez zuen mugarik eta maite zituen abereak gizakiak adina. Horien artean, astoari eskaini zizkion poemak oso ezagunak dira. Eta, parte batean hala zion:

Makila eskuan bidez-bide abiatuko naiz, bidatza zabaletatik, nere lagun amstoiz esateko: "Francis Jammes naiz eta paradisura noa zeren ez bai da inperurik Jainko onaren erresuman".
Eta, esango diot: "Zatozte, zeruko lagun eztiok, abere gaixo maiteok zuon belarri hegatzada zakarrez euliak kolpez astinduz eta erleak..."

Aita Inda Belokeko Beneditarren abataren ustez, F. Jammes-ek astoan egin ziz-

kion poesiak Juan Ramón Jiménez-engan bere eragina izan zuten eta hortik **Platero y yo** idaztearen etorria.

Eta, nola ez, Bidasoa inguru hau biziki maite zuen. Horregatik, bere poemetan aipatua da. Nonbait, gogoko zuen Hendaiako Broca ostatuan egotaldiak egitea, eta atsegin zitzaion Hondarribiko arantzale giroa, bere pasealekuetarik bat San Pedro kalea zehar Faro alderako bidea bai zen. Hortarako bazuen beste arrazoirik ere. Bere bi alaba Damas de Saint-Maur ikastetxean zituen.

Bere obretarik, **Les Robinsons basque** eta **Le Mariage basque** ditu gureganako maitasuna agertzen dutenentarik aipagarrienak.

Bidasoa aldeko lili txanbellinak, bertako kresal usaia, ... zein matagarriak ziren Francis Jammes bezalako Natura zalearentzat.

Gaztaroen poeta naturalista ez ezik naturista ere izanak, ikus daitenez, bere katolikotasunean ere joera hori kutsaturik zerraman. Lapurdin, egunsentiarik berak zekarkion argi berriarekin gatzetako txertoarekiko eta zenbait poema ditu horren lekuko. Hara **Les Géorgiques chrétiennes**-ko adibide bat:

Zoriontsua hura, hegatzada kementsuz, kanta argitsu gorenetera lasai abia ahal duena.

Biziaz boga eta erraz ulertu lilien hitzkuntza eta gauza isilena.

Bazterrean zituen Natura libetatearen ukatzaile iduritzen zitzaizkionak eta keme-

nez kantatzen agertuko zuen:

Nik ez dut jarriko zilifiorik gerrian zeren Jainkoarentzat iraingarri da haragia torturatzeta.
Nere bihotzak emakumeak hautatuko bukaera gabeko Anjelusean.
Nik ez ditut miresten gona arrez estaltzen direnak, edertasuna eskutatzea Jainkoa iraintzeko denez.

Bere "gogozain" zuen Paul Claudel jaunari apenaz egin zituen graziairik poema horiek eta gutun gogorra idatzi zion, poesia erromantiko arinez naturismoa nahasi zuelako. Gainera Jainkoaren iraingarri zer zen adieraziz.

Orthez-go Association Francis Jammes delakoa ospakizun prestatukutan ari denez eta ekainaren 15etik irailaren 15era Hazpamarko Eihartzea etxekartzetara legezko iduritu zaigu. **Juan San Martin**



Francis Jammes Ramiro Arrueren irudian. (Hazpamarko, 1936)

NOIZTIK DU HONDARRIBIARRAK TXAPELA BURUAN?

Los Faisanes deritzan irilara 1660an Luis XIV. etorri zenean, Baienako arrauariarik **txapel gorritz** omen zituzten eztaillak buruak, eta ez omen da historiokoki alderdi honetako hondarribiarrak buruan zer zera makitenaren notizianik geratu.

Ez litzateke gehiegi suposatzea euskaldun txapel bera eramango zutela buruan, eta **beltza** seguraski.

Txapela, seguru.

Hara euskaldunon txapel jaso dituen datu jakingarri batzu:

1) Ontzat ematen da, **lehen txapelak**, Pirineotako artziarik eskuz ehotez zintzutea. 2) José Berrueto kazetari eta leriariarik dionez, Tafallako Santa Maria elizan **1426an** gertatutako milagro batetan parte hartu zuen txapela, berak ikus ahal izan zuenez gero, zezenaren odol kolorez tintatua zen. 3) Gero, **1549an**, eta Arturo Campión jaunak dionez (Euskaria, XI, 190 or.), Nafarroako Enrike II.ri Gramont-

eko jaunak ongietoria egin zionean, 2.000 euskaldun txapel beltzez eratutako tropaz inguratua zegoen. 4) Madoz historikile nafarrak dionez, **1800an** baztandarek zuten txapela (baina txapela beti!) urdina zen. 5) Berry-ko Dukesak **1828an** Hondarribiari egin zion bisita ondoren Donibane Lohitzunera itzuli zenean, txapela zeraman buruan, kronistek diotenez, kolorekin aipatzen ez badigute ere. 6) Lehenengo karlistadako gerra bizian ari zirela, Baldomero Espartero general konstituzionalak, **proklama batez txapela debekatu egin zuen**, Konstituzionaren aurkakako, arierioak, zirenak jasten zutelako; hara bada noiztik den euskal txapela Espainiko Konstituzionaren eza! 7) Dudarik gabe, Zumalakarregik egin zuten txapelari propagandarik handiena; lastima, gazteegi hil zela! 8) Zabal-kundea, berriz, txapelari Tolosako Eliseogitarrek egin zitien bigarren gerra karlistan baino lehentxiu eskuz egiten hasi zirenean; eta 1933an dagoeneko 4.500 txapel egiten zituzten makinaz eguneror.

Hemen ez zen orain prolema txapelak egitea, txapel hauntzat buruak aurkitzea baino!

9) Charles Henningsen militar ingelesak, Zumalakarregiren ofiziala eta lagun mina zenak, txapelari bere liburuan **Basque**

cap deitzen dio, eta "euskal probintzieta" "gorra borobil nazionala" bezala kontuan hartzen.

Hau nahikoa ez balitz, euskaldunok txapela sortu dugula baieztatzea iritzi gabe ere, bada nahiko txapela gure erara munduan zehar zabaltu dugula baieztatzeko, hara hemen beste Europako herriek aitortzen dutena:

Frantsesek: "Béret basque" deitzen diote; italiarrek: "Beretto dei Basqui"; ingelesak: "Basque cap", esan bezala; alemaniarrek: "Baskische platte mütze", eta espainiarrek: "Boina".

Kolorez, berriz, ugaritzen doa!

Baina euskaldunena beltza da errespertoko ekintzetarako; gorria edo zuria gertatiko bengtanzetarako.

Gutxi gora-behera.

Hondarribiarrak txapela buruan betidanik izan duela esatea ez da pekatua larmiega izango; eta Los Faisanes irilara eramango zutena gorria eta beltzaren arteko auketa egin dezake adozeinek! ez baitakigu historiako gorde duen gertakizun hura jaigirokoa izan zen ala serioago dan beste zerbaitea makurtua.

Martin Ugalde

LOREAK BEROTEGIAN

Azken alean berotegietaz pixka bat mintzatzen banitzen, oraindik estalpe haue-
taz esateko asko dagoela iruditzen zait, ze-
ren eta barazki mota franko egiten zela
aipatzen baldin banuen ere, esan daiteke
ez direla barazkiak bakarrik egitera muga-
tzen. Hor ditugu fruta, lore, etab..., baina
halare, esan genezake nekazariak mugit-
kaitzak garena eta lehenengo bolara batean
Gipuzkoa eta Bizkaiko baratzalariak beren
berotegietan ez zituzten barazkiak besterik
lantzen. Horrela, baserritarrei beste beste
inori baino gehiago kostatzen zaigu aspal-
ditik hain sustraituak diren ohituretatik edo
eguneroko eginkizunetik ateratzea, alegia,
gure behi eta betiko baratzeko porru, aza-
naorio, etab... uztea, eta beste produktu
bat lantzen hastea benetan zaila egiten zai-
gula, baina gaurengungo bizimo duari eta
etorkizunekoari aurre egiteko, gauza ezber-
din askori lotu beharra dago. Eta gisa hon-
tan, gero eta nabariagoa da, produktu ez-
berdinetan espezializatzen joan behar ga-
rela, nolabait induristigintzan aspalditxo
egin zutena eta orain baserritarrok egitera
behartuak gaudena nahitaez.

Apirileko hile hontan udaberri usaina
hasten denez eta, ondorioz loreaz zerbit
mintzatzea ausartuko naiz, nahiz eta neuk
ezagutu, gai hontan ez naizela oso iaioa.
Loreak egiteko garaian, barazkiak bezala-
xe, gauza asko dira kontutan eduki beha-
rrekoak. Esate baterako: lurra, argia, beroa,
hezetasuna, ongaria, etab... Oro har, lore



Juanito Endanekoa berotegian

guztiak nahitaezkoa baldin badute lehen
aipaturiko berezitasun horiek, ez dute mota
guztiak neurri berdinean behar.

Ikus dezagun adibide gisa, gure artean
ziuraski gehien egiten den "krabelina"-k
behar dituen osagaiak. Lore mota honek lur
arina, arroa, ondo ongarrutia, ez dedila
buztintsua izan eta PH-az neutroa edo go-
rantean duena eskatzen omen du. Lurra
deskutsatzeko edo ez gehiegi nekatzeko,
tokiz maiz aldatzea komeni deladiote.

Bestalde, argi gutxi den garaian —eta
hau negu partean gertatzen da ez omen du
urteko beste garaietan haina ematen (beste
gauzak bezala), baina krabelinak badute

halako berezitasun berezi bat, hau da, uda-
ran gutxiago handitzen direla baina usain
gehiago botatzen dute eta neguan aldis,
usain gutxiago baino gehiago luzatzen dira.

Azkenik eta amaitzeko, ezin utzi dut
aipatu gabe Hondarribian loregintzara zu-
zentzen den jendea. Berotegi batean baino
gehiagotan egiten bait dira loreak, baina
halare, norbait aipatzekotan, Endane
Juanito dugu gai hontan exenplu emale.
Gizon honek lore asko eta asko egiten bait
du, etxean montatu duen industria kosko-
rean.

J. Bereau

ARRANTZA



Urtearen lehen bi hilabeteak ez dira
onak izan gure arrantzaletzat, iazkoak
baino okerragoak dudarik gabe.

Joan den urtean, Martxoaren erdi alde-
ra arte arrantza bikainak egin zituzten eta
legatza gutxiti ahal berdel arratzak ere
dexenteak izan ziren, ez zen, beraz, etenik

izan. Aurtén, berriz, 15 eguri besterik ez
dira izan arrantza lanetako proposak. Ba-
dirudi, arraina geroz eta beranduago ager-
tzen dela eta orindik bigarandagoa legatz
gehiago ekartzeko itxaropenik.

"Arrantzalea beti apendiz" dio esae-
ra zahar batek, eta honekin zera adierazi nahi
da, geroa beti iluna izaten dela eta kanpai-

na ona hala txarra izango den bukatu arte
ez dagoela jakiterik, ezinezkoa dela "futu-
rismorik" egitea.

Antxuaren salneurriak

Hauek izango dira, aurtengoz, antxua
eta berdelaren salneurriak:

Antxua

Kiloko 32 ale arte	225 pezeta
Kiloko 33tik 40ra	175 pezeta
Kiloko 41etik 45era	150 pezeta
Kiloko 46tik 55era	110 pezeta
Kiloko 56tik 90era	90 pezeta

Berdela Kiloa, 34 pezetetan.

Untzi bakoitzak ekar dezakeen kopu-
ruaz, berriz, esan behar dugu, gorenoko
mugak iazko berdinak mantentzen direla.

Kostera, ofizialki, Martxoaren 1ean hasi
zen. Eguraldi txarra dela eta ez dira, ordea,
oraindik untxiak atera eta egun hauek, un-
tzi azken ukituak ematen igaro dituzte
arrantzaleek.

87ko kostararen haseran, urtero antxu-
kaxak aldatzea erabaki zen, arrainari itxur-
hobea emateko asmatan. Aldaketa honek,
itxura hobetuz gain higienearen aldetik ere,
nahitaezko garrantzia emango dio arrainari.
Aurtengo kaxe, beraz, 88 inskripzioa ipini-
ko zale.

ASTURIAGATIK KAI BERRIRA


Aspaldiko denboretan Lonja Etxea eta Merkatalgoa kaia Puntalean omen zeuden, San Felipearen baluartearen azpian zegoen kanalean. Serapio Mugicaren papere-tan aipatzen denez 1532. urtean kai bat ("muelle o cay") egiteko asmoa zegoen eta dirudienez 1566rako horrelako zerbitu egiten hasi omen ziren. Ubide edo kanal horiek Jaizubia eta Zubimusu errekei eskerrak sortuak ziren errotak eta olak baliatzeko. XVIII mendearen erdi aldean lan handiak egin omen ziren kai hau egokitzeko eta inguru hori agertzen duten XIX mendeko irudi guztietan azaltzen da.

Arrantza ontziek, berriz, Madaleneren ermitaren parean omen zuten beren tokia. Orduan Portu auzorik ez zen, eremu hori gehiena itsas behera zegoenean "hondar ibia" bait zen, alde batetik bestera oinez igaro zitekeena, alegia. Itsas gora zegoenean, berriz, urak estaltzen zuen dena. 1958. urtean 26 etxe bakarrik omen zeuden auzune horretan.

Dena den, garbi dago arrantzako jardunak aspaldiakoak direla Hondarrribian, alde batetik San Pedrorren Kofradia 1361 urtean fundatu zelako eta bestetik 1295.eko Kontsejuaren seilu batetan agertzen den baleak halakoak harrapatzen zituztela adierazten duelako. Urrutira joanda, noski.

XVIII mendearen erdia igarota, Kofradia-aren eraginez, egin omen ziren lehen harrisia eta kaia, orain San Pedro kalean da- goen tokian gutxi gora-behera. Berandu samar, beraz. Gero, XIX eta XX mendeetan zabalkunde lanak egin ziren Portuak gaur duen itxura hartu arte. Ez zen portua, kaia baizik, moila, baina Portu izenarekin geratu zen erdaraz Marina esaten zaiona.

Herritik eta Bidasoatik kanpo, Santelmo gazteluaren parean gutxi gora behera, Asturiaga eta Astubiagako portua omen zegoen antzinatean. Erromatarren garaian behintzat. Horrela adierazten du behinik behin inguru horretan, Oiarzungo minera- lez betea, urperatua dagoen itsasontziak, bertan erromatarren garaiko zeramika pus- kak aurkitu baitira. Baina hor ere XVIII men- dera arte, behintzat, ez omen zen lan han- dirik egin itxurazko kaia antolatzeke. Kala- dero bat zegoen eta hartaz baliatzen ziren arrantzaleak barra gaiztoa zegoela eta, he- rri- ra ezin iritsi zirenean babes- a bilatzeko, 1609ko agiri batetan irakurtzen denez aurreko denboretan ba omen zeuden egu- rrez egindako oholza eta debileta edo ka- brestante batzuk baina hura dena ere pus-



katua omen zegoen orduko, agiri horretan lehengo hura berregiteko eskatzen bait zu- ten errejidoreek. Bestetik arrantzaleek etxe bat egitea eskatzen zuten bertan gaua igar- o, eta sareak eta aparejoak gorde ahal izat-eko. Ez dakigu egitea lortu zuten. 1730ean Gipuzkoako Juntak Hondarrribian bildu zire- la aprobetxatuz laguntza bat eskatu zuten hondarribiarrek eta baieztokoa lortu bazen ere badirudi ez zela behar bezala aprobe- txatu.

Handik aurrera ezer gutxi aipatzen As- turiagako portua, itsasontziak haunditu ahalia txikia eta hondo gutxiokoa gertatu zen

nonbait eta hortik etorriko omen zen ga- rrantzia galtzea.

1912ko lege batek aukera eman zion Hondarribiari babes portu bat egiteko. Bi toki ziren proposenak: Asturiagako kala eta Gurutz Aundiko entsenada. Bigarrena aukeratu zuten. Hura zela eta, Javier Ugar- te Fomentoko ministraria Hondarribira eto- rri zen gauzak antolatzera laguntzaile eta tekniko talde batekin.

Herririk sekulako ongietorria egin omen zion eta Herriko seme ere izendatu zuten. Berari zor zaio, beraz zati haundi batean behintzat, Kai Berria egin izana.

Portu hark, ordea, gutxi iraun omen zuen 1919ko denboraleek erabat puskatu bait zuten. Ondorioz, gure arrantzaleek be- rriro barra gaiztoa igoatzeko arriskuan ibili behar izan zuten.

1933an proiektu berria egin zen aurre- koaren tokian eta tankeran, baina hobeto egina, sendoagoa. Diru falta zela, ordea, 36.eko gerra zela eta abar, gelditu egin zi- ren lanak, hari- eta azkenean Ramon Iribar- renek portua bukatu zuen arte.

Portua bukatu ezezik beste bi gauza ere egin zituen Iribarrenek gerra ondoan: Bida- soaren ezkerreko espigola eta Kai Berria joateko bidea. Handik aurrera babes portu hutsa zena arrantza portu ere izan zitekeen.

Jon Zurbeltz



SIADECOREN AZTERKETA

Aurreko alean agindutakoarekin jarraituz, uste honetan zertan dagoen Siadecok egiten hasia duen herriko azterketa soziolinguistikoaren berri, axaetik bada ere, emango dizuet.

Hiru eratako informazio edo datu bilketa egin behar zirela alipatu nizuen. Lehenengo datu bilketa iadarrak egina dago. Azken urteetako Errolda edo Zensusetako datuak eskuratu dira. Errolda horiek euskararekiko datu batzuek dakarte. Esate baterako, zenbat hondarribiarrek Euskara dakielako zioen eta zein neurritan ezagutzen, mintzatzen, irakurtzen eta idazten.

Datu horiek, alde batetik urte desberdinetako erroldaz eta, beste aldetik sexoz, adinez, jatorriaz, profesioz, ikasketaz mailaz, e.a. konparatzen ari dira. Berdin, euskarak azken urteetan zehar izan duen prozesua. Era berean, nolako egoera soziologikoan dagoen eta bizi izan duen, bai Hondarribia osoan eta baita herriko auzo bakoitzean ere.

HONDARRIBIAren artikulatxo honetan, emaitza hauen aurrerapen batzuek ematea zen nire asmoa. Beste baterako utzi

beharko dut, lan zati honen azterketarekin oraindik ari bai dire eta amaitzek dago.

Era berean, lau hondarribiar gazte dabilta bigarren faseko datuen bilketan, hau da, zenbat erabiltzen den euskara, batik batik nork, noiz, nola eta zertaz hitzegiteko erabiltzen den.

Nola egiten duten?

Sei motatako galdekizunak egiten dira, beste hainbat herriko aktibitate eta dinamita interesgarri ete gehienetan duten alorrean: Lantegi eta itsasontzi, ikastetxe, kirol eta kultur elkarte, helduen eskualduntze, jolas toki eta leku publiko, eta askenik, gi-zarteko zerbitzuetan (Denda, taberna, dirutxe, eliza, e.a.).

Eta zein datu jasotzen duten?

Galdekizun bakoitzak normalean lau atal desberdin ditu. Talde bakoitzak, bere partaidea guztien eta euskara dakitenen kopurua eman ondoren, zenbat, noiz eta zertan erabiltzen duten euskara esaten du. Ez bakarrik hitzez, baizik idatziz baita ere.

Beste aldetik, lau gazte horiek ahal du-



ten neurrian zehazten dute euskara mintzatuaren eta idatziairen presentzia. Enpleguak, bazkideak, e.a.ek, zenbat erabiltzen ari diren euskara elkarren artean, zenbat herriarrek eta bertan aurkitzen diren herriarrek elkarrekin...

Euskara idatziairen presentzia neurtzeko, ageriko ezaugarriak, inpresioak, fakturak, oharrak eta ikusten dituzten idazki guztiak kontutan hartzen dituzten.

Lan guzti hau, Aste Santutarako burutzea espero da. Honela lan honekin bukatzen da bigarren fasearen datu bilketa. Datu hauen bidez, Siadecok baliatuko da Euskararen presentzia bizitzako publikoan analisia egiteko.

Azterketa soziolinguistikoaren lehen zatia bukatzeko eta euskararen egoeraren diagnosis edo gaur egun zertan den aztertzeko, 1200 bat herriarrei inkesta pertsonala egitea besterik ez da gelditzen.

Urrengan ere, saiatuko naiz ba, noraino inbi den azterketa honen berri ematera.

Fermin Olascoaga



DEMOGRAFIA

EZKONTZAK

Otsaila

- 26: Imanol Arzuaga Sarateia, Hondarribian jaioa eta Idoia Taberna Aristegi, Iruñen jaioa.

Marxoa

- 5: Manuel Becerra Guzman, Iruñen jaioa eta Marta M.^a Miranda Pelaez, Hondarribian bizi dena.
12: Jose M.^a Odriozola Manterola, Donostian jaioa eta M.^a Izaskun Lizarraga Irizusta, Hondarribian jaioa.

JAIOZAK

Otsaila

- 19: AITZOL Iraola Badiola
Gurasoak: Juan Antonio eta M.^a Jesus.

- 19: ALAZNE Errondosoro Senar
Gurasoak: Jose Migel eta M.^a Antonia.
26: INIGO Jauregi Iriazabal
Gurasoak: Luis M.^a eta M.^a Rosario.
28: LETIZIA Martinez Gezala
Gurasoak: Maximo eta Jaione.

Marxoa

- 1: MIRIAN MONTGIL Barbosa Almagro
Gurasoak: Vicente eta Natividad.
4: MARTA Llanillo Ortiz
Gurasoak: Jose Jabier eta Rosa M.^a.
9: REBECA Ribes Lazkanotegi
Gurasoak: Andres eta M.^a Pilar.
9: IVAN Pikabea Arburu
Gurasoak: Francisco eta M.^a Mercedes.
12: JON Alkain Zendoia
Gurasoak: Juan eta M.^a Paz.

HERIOTZAK

Otsaila

- 20: Gervasia Perez Urdangarai
Sorotaberri 10.
22: Beatriz Senado Barriocanal.

Marxoa:

- 3: Migel M.^a Ugarte Zubeldia
Mourlane Mitxelena, Lauaenea
7: Constantina Olazola Sorzabalbere
San Pedro 29
12: Sebastian Mendizabal Tolosa
S. Gabriel Egoitza
16: Francisca Carballido Sanchez
Planetas B - 2. Mendelu Auzoa

"JESUS HAURRA" IKASTETXEAREN BERRIA



Zortzigarren mailakoek, ikastaroaren bukaeran bidaia bat egingo dugu eta horretarako dena prestatuta daukagu, lehenengo egunean Zaragozara iritsiko gara eta han Pilarica eta Murrailak ikusiko ditugu, ondorengo egunetan Barcelona inguruan ibiliko gara eta gauza pila bat ikusteko asmoa dugu: "Cavas de Segura Viudas", Montserrat, museo guztiak, "Parque Güell",

"Pueblo Español", "Parque de Atracciones", Zoologikoa, "Sagrada Familia" etab., gau batean antzerki bat ikusiko dugu eta bestean zinera joango gara. Azkeneko eguna, Estartit izeneko herri txiki batean pasako dugu eta hau "Egun libre" izango da.

Ilusio handia dugu bidaia hau egiteko baina oraindik diru gutxi samar bildu dugu, hilerio kuota ordaintzen dugu, igandero zi-

nea antolatzen dugu ikastetxean, zozketak ere egiten ditugu, baina hala ere oraindik ez dugu nahikoa. Diputazioak ere zer bait emango digula uste dugu eta beste norbaitek lagundu nahi badugu ere pozik hartuko dugu.

Iñigo Barkaitzegi



KIROLAK

ARRAUNA

Entrenamenduak urrian hasten badira ere, orain arte hiru estropada bakarrik egin dira eta hirurak Banko Mugikorrekoak, hauetako bi Orion eta bestea Legutianon. Gure partaidetza ugaria izan da -100 arraulari baino gehiago, hiru estropadetan- eta emaitzak ikusita urte ona izango dugulako uste osoan gaude.

Estropada hauetan hiru lehen-postu lortu dira; seniorrek, lemaizaindu lauokoa: Al-tuna, R. Amizabalaga, I. Amizabalaga eta

Ponce, Lemazain gisa Sistiaga dutelarik. Lemazaingabeko lauokoa ere seniorrek: J.M. Elduain, S. Kanpandegi, L. Olaziregi eta Aitor Agirre. Jubenilek Lemazaingabeko bikoan: Iñaki eta Edorta. Jubenilek zortzi-koan estropada izugarria egin zuten Orioko Jaxxieran, baina ez zuten beuren mailako kontrariorik izan.

Bien bitartean, ehun mutiko baino gehiago "harrobian" eta trainerua bere taldea prestatzen, aurreko urteko arrakasta gehitu nahirik.

PILOTA

Hondarrbian betidanik pilotarako zale-tasun franko izan bada ere, badinudi gaurregun beste kirol batzutarako joera handi-diagoa dela.

Hala ere pertsona bakar batzuren lanari esker, ez bakarrik ikusteko zaletasuna, baita jokatzeakoa ere gehitzen ari dela esan dezakegu.

Bi gizon dira batez ere gure kirol jator honetaz arduratzen direnak, Norberto Tran-txe eta Jose Mari Arbelaz eta larogei muti-ko baino gehiago egunero pilotan jokatzen dutenak, gehienak eskuz, palaz edo beste tresnaz egiteko lekurik ezagatik.

Iaz Hondarribiko gazte batzuren izenak nahiko ezagunak egin ziren pilotazaleen artean eta aurtten gauzak hobeki joango dire-lako ustean gaude, hauek guztiak gorago-ko mailatera igo direlako, horregatik eskatzen dizuegu, noizean behin egunkariak irakur ditzazuela eta nola ez, Jostaldin jokatzen diren partiduetan ikustera joan zaitezela.

Iaz, besteak beste, Herrien Arteko Txapelketa Probintzialean, Irungo Joshe Lopez-egik izenekoan, Oartzungoan etab. 40 bi-kote baino gehiagok parte hartu zuen eta aurtten ere 4 bikote dira Bidasoako Herrien Arteko Txapelketan ari direnak, gero probintzia mailan jarraitzeko.

Aldi berean Jostaldi Pilotalekuan, herri mailako Txapelketa jokatzen dala da gomaz-ko eta laruzko pilotekin, bertan 44 bikotek parte hartzen duenak.

Gure Zorionik bereonak pilotari eta pilo-tazale hauei.



88. URTEKO AURREKONTUA, 918 MILIOITAKOA

Hil honetako Udal informazioan zenbakiak ditugu notizia nagusi. Gai lehorrak izaten dira aurrekontuak; askotan adituiztat bakarrik irakurgarriak. Biziagoak izaten ditugu politika bizitzari eta kaleko mobidari dagozkienak. Hala ere, Ideologiak eta utopiak errealitate bihurtuko badira aurrekontuei eskerrak izango da. Hitzek baino areago aurrekontuek esango digute Udalbatza bat nolakoa den eta nolako gizartea bilatzen duen. Eman diezaiogun zenbakiei, beraz, dagokien lekua.

Martxoaren 17ko Plenoak aurtengo aurrekontua onartu zuen: 918 milioi guztira. Beraz aurtengo aurrekontuak % 6,3ko igoera izan du igazkoarekiko. Ondoko koa-droa begiratzen baduzue, gastuetan, handiena inbertsioena dela ikusiko duzue, 368 milioitakoa. Diru sarreretan, berriz, handienak "zerga zuzenak" ditugu (143 milioi) eta "tasak" (145 milioi). Eskatuko den prestamoa 120 milioitakoa denez, Udalaren zorra % 23,5etik 21,5era jaitsiko da aurtun.

Gastuen artean aipagarriak dira Udalak bere buroa oinarritzko lan tresnez hornitze-ko egingo dituenak. Hiru dira inportanteenak: Arau subsidioariena (8 milioi), hiri



Lur publikoa erosteko 30 milioi daude aurtun

Zahararren plan Berezia (10 milioi) eta 24, poligonoaren lurren jabe egin ondoren etorriko den Plan Partzialarena (3,5 milioi). Lur publikoa erosteko 30 milioi daude.

Egingo diren obren artean Udaletxea aipa daiteke (43 milioi), eta Hondartzako Polikiroldegia (110 milioi). Aurtengo inbertsioetan azken hau da handiena. Kirola dela eta, Amuteko kiroldegirako ere 10 milioi erabaki dira. Bestalde, Udalak Guadalupeko Fuertea erosteko asmoa du ere eta horretarako 7,5 milioi sartu ditu aurtengoz.

Euskara Kontseiluak 8,5 milioitako

aurrekontua du eta gastu aipagarrienak, Azterketa soziolinguistikoa, Euskaltegia eta "Hondarribia" aldizkaria dira. Kirol Kontseiluak ere 9 milioi jasoko ditu.

Euskaltegia

Udalak datorren kurtsuan Euskaltegi publiko bat irekitzeko asmoa du eta handik eta hemendik informazioa biltzen lehen pausoak egiten hasia dago. Horretarako Euskara Kontseiluak Hondarribiko AEK, HABEko inspektorearekin eta Irungo Udalarekin izan ditu elkarrizketak. Azken honekin martxoaren 17an bildu da lehen aldiz nolako harremanak izan litezkeen udal bion artean aipatzeko asmotan, Hondarribia herri txikia bait da bere gain Udal Euskaltegi oso baten ardura hartzeko. Bileran Irungo Udaletxean izan zen bertan Irungo Alkatea eta euskararen arduradun bi zirelaik, eta Hondarribitik zazpi lagunek osatutako batzorde bat Euskara Kontseiluenaren izenean. Bileran ez zen inolako erabakirik hartu baina inrundenaren esperientzia argiagailu izan zen Hondarribiko taldearentzat. Udal bion arteko lehen harreman hau atsegina eta irekia gertatu zen.

Etxebizitzaren beharrak jakiteko Udal-galdekizuna.

Udalak galdekizun berezi bat prestatu du Hondarribian dagoen etxebizitzara beharra zehatzago ezagutu asmoz. Horretarako 5.000 inprimaki banatuko ditu herriko auzorietan eta bestelako tokietan. Galdekizunaren bidez eskatzaileak bere behar ekonomikoak, familia egoera eta aie agertu beharko dituzte gero Udalak datu horiek goaon edukita bere plangintza egin eta erabakiak hartu ditzan.

Jose Juan bereau zinegotzi berria

Martxoaren 17ko Plenoan Patxi barkaitz egite berri zinegotzi kargua utzita, Jose Juan bereau sartu da zinegotzi EEko taldean 21eko Pleno Berezian. Barkaitz egitearen eragina nabaria izan da Hirigintzako lehen-dakartzen. Jose Juan, berriz, lehendik eza-guna dugu Euskara Kontseiluan eta aldizkari honetako lankide gisa. Agurrik bereena doanari eta ongi etorria berriari!

1988ko AURREKONTUAK

GASTUAK

	PESETAS
1. Langile eta Zinegotzien soldatak	233.556.485
2. Gastu Arruntak: Udaletxeak, eskoletakoak, kalegarbi-keta, mantenimendua, semaforoak, argiak, hondartzakoak, jaiek	203.170.750
3. Interesak	36.000.000
4. Kultura, Kirolak, Euskara, Gazteria, Hezkuntza, Inguru-nea, Okupazio Lantegiak, Eskola-garraiak, Gizarte Laguntza, Langabetu eta Jubilatuak laguntzak, Ikastaroak etab	50.581.608
5. Inbertsioak	367.688.000
6. Enplegatuei aurrerakinak	3.000.000
7. Maileguz amortizazioa	25.000.000

GUZTIRA 918.996.843

DIRUSARRERAK

1. Zuzeneko zergak: Hirilurrena, Industrien eta Gainbalioarena	142.980.588
2. Zeharkako zergak: Zirkulazioa eta publizitateak	22.170.000
3. Tasak: Zakarbilketak, Obra-baimenak, ura, aparkalekua, bide publikoa okupatzeagatik etab	145.431.100
4. Diputazioak ematen duena	296.513.511
5. Leku publikoetan saltokiak eta antzekoak jartzea	15.945.520
6. Udaletxeak obrak egiteko Diputazioak ematen duena ..	26.000.000
Kiroldegia egiteko Diputazioak ematen duena	50.000.000
Langabeziari aurka egiteko Diputazioak ematen duena ..	7.500.000
Alde Zaharreko Plan Berezirako Eusko Jaurlaritzak	7.500.000
Aurreko urteetatik sobratua	61.803.000
Beste zenbait	23.141.613
7. Enplegatuek itzulitakoa	400.000
8. Inbertsioetarako aterako diren maileguak	119.611.511

GUZTIRA 918.996.843